

MATRIKULA PROZEDURA:

MATRIKULA EGUTEGIA:

Prozedura	Data/Matrikula egiteko ordutegia
Matrikula on-line	Otsailaren 15eko 9:00etatik otsailaren 22ko 23:59ak arte.
Osatutako taldeetan Ikaspostu librerik balego, otsailaren 24an, 14:30etan agertuko dira	INTERNET BIDEZ: Otsailaren 24ko 15:00etatik martxoaren 15eko 23:59ak arte

MATRIKULA ON-LINE PROZEDURA:

- Eskolako web orrian sartu (<http://eoip.educacion.navarra.es>) eta "Matrikula" botoia eta gero "Matrikula Mintza Taldeak" edo "Matrikula tailerrak" botoian klik egin.
- Programak ezartzen dituen pausuak segitu behar dira.

BETEBEHARRAK:

- Matrikulatzeko betebeharrekoa : 2023an 14 urte betetzea

DOKUMENTAZIOA:

- NANaren fotokopia. IHEO honetako beste matrikula prozesuetan ekarri duenak ez du ekarri beharko.

TASAK:

- Ordainketa ON LINE, banku txartelaren bidez egingen da, izen-ematearen momentuan. Kasu berezietan Eskolako Administrazioan, hurrengo egunean, ordaindu ahal izango da banku txartelaren bidez.
- Ikasle batek matrikula burutu eta lanegun baten epean ez badu tasa ordaintzen edota matrikulatzerakoan eskatzen zaion dokumentazioa ekartzen, matrikula hau deuseztatu egingen zaio eta ez zaio dirurik itzuliko.

PREZIOA:

- 90´ taldeak: 60,48 euro.
 - 120´ taldeak (Cuicsine eta Cucinare): 90,72 euro
- English book club: debalde

KURTSOAREN HASIERA:

	IKASTAROAREN HASIERA	IKASTAROAREN BUKAERA
Astelehenetako taldeak	Otsailaren 27an	Maiatzaren 15ean
Astearteetako taldeak	Otsailaren 28an	Maiatzaren 9an
Asteazkenetako taldeak	Martxoaren 1ean	Maiatzaren 10ean
Ostegunetako taldeak	Martxoaren 2an	Maiatzaren 18an
Ostiraletako taldeak	Martxoaren 3an	Maiatzaren 19an

- 10 saio izanen dira.

OSATUTAKO TALDEAK:

- Osatutako taldeak web orrian argitaratuko dira otsailaren 23an, 16:00etan.

TALDE ALDAKETA (osatutako taldeetan ikasposturik libre balego):

Bertan behera gelditu diren taldeetan matrikulatuta dauden ikasleentzako bakarrik

- Otsailaren 24an. Prozesu hau aurrez aurre Administrazioan egingen da, 9:00etatik 14:00ak arte.

OHAR OROKORRAK:

- Hizkuntza eta talde bakoitzean leku kopurua mugatua da. Ikasle kopurua: 15 (Taldea irekitzeko gutxienezko kopurua: 10.) Lekuak ikasleak matrikulatu ahala beteko dira.
- Matrikularen dirua ondorengo kasuetan bakarrik itzuliko da:
 - Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak ikastaroa ez ematea erabakitzen bada.
 - Ikastarora joateko ezintasuna justifikatzen bada, beti ere:
 - Ikastaroak irauten duen bitartean lan kontratua sinatzeagatik
 - Norberaren edo familia zuzenaren ospitaleratzeagatik.

Bi kasuetan idatziz justifikatu beharko da. GARRANTZITSUA: Matrikulari uko-egite eskaria bakarrik onartuko da taldeko ikasle kopurua dela eta, taldea bertan behera ez baldin bada gelditzen. Ikastaroa hasi ondoren ez da dirurik itzuliko.
- Eskolan Baliabide Gela bat dago, bertan kontsulta gela, multimedia gunea eta mailegu zerbitzua aurki ditzakezu
- Matrikulak ez du baliori izango, IHEOK geroago egingo duen berrikuspenaren ondotik dena zuzen dagoela ikusi arte.
- Esku-orritxo honetan argitaratzen den Informazioak aldaketak izan ditzake. Hauek, aldeztatik iragarriko dira web orrian.